

Suradesako Administrazio Kontseiluak 2023ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo jaso zen:

4.- Suradesa Eusko Jaurlaritzak onartutako Printzipio Etikoak eta jokabide-printzipioak atxikitzea onartzea, Next Generation funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Lankidetzaz hitzarmena birgaitze bulego eta birgaitze-gaietako laguntza programen erakunde laguntzaile funtzioak garatzeko, Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3,4 eta 5 programei dagokienez, erakundeek eginkizunak betetzeko orduan, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) Suradesak Printzipio Etikoak eta Jokabide Printzipioak bete beharko ditu.

Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeak, 2022ko martxoaren 18ko bilkuran, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Etika eta Jokabide Printzipioak onartu zituen eta hitzarmena sinatu dugun sozietateei onartutako Etika eta Jokabide Printzipioei atxikiko aukera eman digute, Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eskatutakoa bete ahal izateko.

Hori horrela, Iker Urbinak Eusko Jaurlaritzak onartutako Etika eta Jokabide Printzipioei atxikitzea proposatzen du.

Iker Urbinak proposatutakoa kontutan izanda administrazio Kontseiluko kideek aho batez ZERA ERABAKI DUTE:

Lehena.- Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeak, 2022ko martxoaren 18ko bilkuran, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Etika eta Jokabide Printzipioei Suradesa atxikitzea, next generation funtsak kudeatzeko eskakizun gisa.

Bigarrena: Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzordeak, 2022ko martxoaren 18ko bilkuran, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Etika eta Jokabide Printzipioei bat egitea sinatzeko ahalmena ematea Lehendakariari.

Hirugarrena: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari jakinaraztea.

Arrasaten, 2023ko martxoaren 31ean

Zuzendariak
Izpta.: Iker Urbina